

## Sorginak eta hante Pasadizoak

D B H Z Haber, hoik dia istorio batzuk, eh... kaxtabideko Juakin Mari zenak kontatzen

zizkiunak. Zen mutitzar bat, gizajua, ta gure etxea askotan etortzen zen. Eta zerbatte gurkin asaltzea alde do ola, izuarritzko istorio politikak kontatzen zizkiun, ta gu eoten gisan denak beira arri zc sango ote zun edo gailea zun izuarritzko grazia istoriok kontatzeko. Eta arrek eun batian kontatzen zun, ba... bere edadeko neskak, attasemeiko neskak, nayo izaten izaten men zuen ba kategori haundiako mutilak; aranoarrak ta hola. Aranoarrak gañc juaten men tzian manga motzatako alkandora txuria, ta txalekua gañtikan, ta hola, prestatuk. Ta hairi beira eotten men tzian. Eta eun batian pentsatu men tzuen: "A bai! Gaur ez due horretikan neskatzai launtzen, ez dia Arrosamentako estartan goti pasako, gaur iztu biha itu ongi!"

Ta leno bakizu denak sorgina izaten tzian, denak izuarri sinisten zuen sorginkerian, eta kalabaza haundi ba hartu men dute, ez dakit nongo alorretik hartuko zuten, barren guzia hustu, begik eta abus ta dena txuhua in, argizari bat jarri men jote pixtua barrenian eta estarta hartan barrenian izuarritzko beldurra matten omen tzun. Han utzi men dute ba. Ta, herriko juan omen dia ta esan men due: "Gaur ez ttuk hortik pasako, ez ttuk hortik pasako gaur!" Eta gero berak tabernan sartu ta goizeko ordu bik hiruk arte, ta auskalo nola juango zian betikan goti eta ez omen dakte... esaten tzun "ez dakit nondik pasa izango zian neska ostia hoik, beñlo kalabaza han tzon oaindikan bere argizaria pixtukin". Eta berak ifor atrebitzen ez pasatzea! Hartu men zittuen Arrosamentako estartan bado harriya nahikua ba... Hartu men zittuen pilla bat, kalabaza txikitu men zuten lendarbizi, zea... itzali harte, txikitu ta ongi txikittua ta ya ongi... itzalia zola ikusi zutenian ordun pasa men tzian, ta... ordun e daldariz.

Hau re da Juakin Marin istori xelebre hoitakua. Da egia izango da gailea seuraski zergatik halaxe kontatzen zittun egik baldin bezian bezela. Ba eun baten, Goizutako plazan, musika men tzon, eta... han omen zabiltzan neskatz guzik dantzan

“un, dos, tres vamos a bailar” dantzen omen zuten. Eta haik juanda mesedez eskatzen men tzuen mifio halako mutil xelebreikan inorke nahi ez ba, eta pentsatu men zuten: “a bai!” Untxalon etxeko etxian onduan izaten zen zea bat, e... zaldi mandotei bat manduak cukitzen zittuenak mandozaiak. Juan omen zian azukre zorro marroi batzuk izaten zian paperezkuk. Haitakuk hartu men zittuzten, manduai hankazpitiken da nahiko mandeuli kendu men zioten, zorrotan sartu, mandeulik kendu zorrotan sartu, mandeuliz betek ibiltzen zian, zorruan sartu muturra hola pixka bat zorruai bueltaka bueltaka itxi, plaza juan omen zian, eta bota men zittuen ba, han omen zabiltzan oaindikan nexkatx hoik “un, dos, tres vamos ha bailar” dantzan, ta poliki-poliki lurrian utzi men zittuen biño gero neskatz haik dantzan zabiltzanian zorru haik hautsi hankakin, ta mandeulik beti gotti itten du! Eta sartu men zian, denbo batian gaitzakin e etzen ibiltzen denak gonakin ibiltzen zian, sartu omen zaizkiote ba neskatz hoi ri bakizue non, mandeuli hoik, ta laixter plaza garbittu men tzen han, baxter guzita erki zeatu men zian!

Haure hiruarren ixtorio hau re Juakin Marina da. Hirugarren atala, esango nuke nik. Behin, Fermineneko Patxi zu zela uste dut, ba omen zen lepua iyar-iyarra ta burua haundiak. Eta Juakin Mari gizaju honek izaten zun ernia ta izaten zittun bere partiak nahiko haundik, hola bixtan ibiltzeko moduko, bai hola nabaritzeko modun ez? Eta Maritxuneko tabernan, biek hasi men dia, elkarrei nahi zittuen guzik esan behar omen zioten: “Hijo puta” ta “lapurra” ez, gaileko guzik, nahi zittuen guzik. Ta Fermiñeneko Patxikuk esan omen zion: “Nik hirekin astoa ingo niket, errotara artoa eramattcko, aurren ituken hoik atzen patuta”. Ta Juakin Marik san omen zion: “Bai heorre re hartako ongi ongi izango hitzakek eh! Sokalasterria lepotik emango... eman ezkeo elitzaikek behintzat burutikan bela ateko”. Ta bestiak ikarri gaizki hartu, ta haserratu, ta nearrez ta dena patu men zun.

Hau zen sorginatan sinistu o ez sinistu, ta zenbateño sinisten zuen konturatzeko gurec atta zenak kontatzen ziongui. Donfermingo Oxe Miel, ta Alduntzin-Bordako Juan Jose biek parientiak tzian, eta bai omen zijuazten eun batian etxea, herritikan atea ta, goizaldian, oso gau iluna omen zen, oso gau iluna, eta Alduntzin-Bordako Juan Josek esaten omen zion sorginak baziala, seuro omen zeon sorginak baziala. Eta Donfermingo Joxe Mielek ezetz, sorginik etzela izaten hoik tonterik tziala, hoik txorakerik tziala. Hala diskutitzen juan omen dia Belakoko azpiñlo, eta han Joxe Mielek Donfermin aldea hartu behar omen zionta Juan Joxek Alduntzin-Borda aldea seittu, ta hala behintzat biyek despeittu men tzian, abitu men da Joxe Miel Donfermin aldera, eta halako batian hor aitzen omen ttu izuarritzko soñuk. Eta gero ta bertao ta gero ta bertao ta iluna, ta deus c ikusten ez! Eta azkenian leno sorginatan sinisten etzuna arrunt... arrunt izatzen hasia "ba hemen dizkit hemen dizkit" pentsatzen omen tzun, ta halako batian hor izautu men du ben itxeko zakur beltza, "Moro", zela, ta halako, esan omen zion etorri zenenian ondo ondora torri zenian esan omen zion: "Toz Moro toz, etxera joaten tzanen a ze ostia hartu bihar tzuna".

Hau omen tzen berri, gizon bat omen tzen harro arrua ez dut sekulan aittu izandu igual parientia re zen, eztakit. Eh... etziaten san izandu zein zen miñio, nahiko harrua men tzen. "Etzela sorginik izaten, etzela sorginik izaten ta hoik txorakerik tziala, hoik jendian asimakizunak tziala ta jende tontunak gañca, hoik etziala izaten", oso harrua men tzen. Eta halako batian bere launak pentsatu omen tzuen: "Hau, harroputz honei man behar tziou eskarmen erra, man behar tziou". Eta Olatxon izaten omen tzen taberna, ez dakit Olatxon edo Olatxoko ingurun, miñio hor behintzat nonbatte, izaten omen tzen taberna. Prestatu men da ba, bai men tzakiten neskai launtze juaten zela mutil

hau, eta bueltan ze ordutjak/ ze ordutan etortzen tzen, eta jarri men tzen mandire batekin, eta dena apaindu ta jarri men tzen, bela bat eskun zula atea men tzen Mertxeneko azpi hortan, ta mutil hoi heldu zela, ral! Gelditu men zen lenbizina, hoi kusi zunian, belakin da hola, ta pauso bat aurrea. Ta sorginaz jantzia zonak paso bat atzea. Ta bestek pauso bat aurrea, pauso bat atzea, ta sorginaz jantzia zonak pentsatzcn omen zun: "Honek, heldutzen ziaq gailea honek egitaz ez dik sinisten sorginik badenikan. Honek helduko ziaq gailea". Ta hola bada ez badare atzea pauso bat. Ta halako batian, harro hoi re etzen oso... oso... seuro izango sorgina zen o etzen, Mertxeneko alorrea ral salto in omen zun ta san omen zion: "Tor di honera, honera tor di, honera tor di beste hoik baldin battuk, ez hitzakela hemen sartzen? Hau bedeinkatua zioq eh! Bedeinkatua zioq. Tor di honera!" Ta sorginak bedeinkatua san aittu zunian, iztu baldin bazea bezela mrra! Izuarrizko aballan aldein omen tzuñ eta Olatxora juan omen tzen, han aldatu men tzen, kendu men zittun maindiriak eta denak, jarri men tzen excita, eta beste hoi hor heldu men da ikaragarri asnsaundittua eta: "sorgiñak ate zaizkiala" ta bestiak "bai zea mote, sorginik ez duk izaten ez duk ba correk esaten sorgiñik ez dela?" ta, "baietz, baietz ate zaizkiala, hortxe, Mertxeneko azpin, ta nik alorrea salto in, ta hara juateko esan tzioat, hara juateko san tzioat haber, hura bedeinkatua dola ta ezetz sartu, ta ez duk sartu horretikan, ez duk sartu!

Eh leno, spezak juaten tzian, urtero etxez etxe, lurak bedeinkatzea. Errezo batzuk itten zittuzten, ur bedeinkatua botatzen tzuñ eta etxeeko andriak ba gehienetan zeezer eman itten zioten ez; baberna edo gazta bat, edo al zena, baserritan al zena. Eta ordun Goizutan bai omen tzen etxeeko andre bat urrutti urrutiko baserri bat "Zumarrarenekua", ba oi omen zen beti ollasko pare bat ematen men zizkan apezai lurrak bedeinkatze juaten zenian. Ta urte hartan behintzat apezai eztakit ze pasako zitzain biño lurak bedeinkatze alletu ez "Zumarrarenño". Eta halako batian, spezakin hizketan o hasi

men da ba andri oi mezeta torri denian o eta esan omen zion: "Aizu bai, lengo urtia tan ollasko on askuk jan izandu tu biño, aurten oaindikan ez dia alletu." Apezak esan omen zion da andriak "a ez! lengo urtia tan zurc Jon izandu za lurak bedeinkatzea biño, aurten etza alletu." Ta "a biño "Espideko"" sorotikan bota nun bedeinkaziua "Zumartene" aldea ta balio du." Ta "a bai nik e ollaskuk "Espideko"" sorotik betti biali nittun, ez al dia alletu?"

Leno bagiñun Aranon pianista bat Bittor, Mailakua, izuarri gizon ona zen, ta kontuk kontatzen zittun bate parremurritxikan in gabe, oso serio, biño bai xelebre kontatzen zittun. Eun batian mezatik atea ga ta giro earrta zaon, eta hasi ga kontu kontatzen eta esan nion Bittorreki: "Aizu, aizu, aranoarrak bazue hola... zea... dena zentzako izateko grifa zuelako holako fama ez?" Ta "a bai?" Ta "Bai" Ta "Nola ba?" Ta "Lenore ez al tzen ba Aranoarran bat Santio apostoluakin mendin topatuta, be zaldi zurikin da, heldu zela ta esan omen zion aranoarrak: "kaixo kaixo, zaldi erra" ta "bai zaldi erra" ta "emango dizut" esan omen zion apostoluk, "emango izut zuretzako kapaz baldin baza aitagure bat errezzatzea hasi ta bukatu buka, hasi ta buka geldittu gabe." "Bale, bale." Aranoarra hasi men tzen "Aita gurea zeruetan zerrana santua izan bedi zurc izena etor bedi zure erre erreinua" ta geldittuta esan omen zion "ta astarkak e bai?" ta ya zakdia galdu" esan nion Bittorreki ta. Bittor hoi geldittu zen hola serio serio "a bai aizu bai, bai, bai, aittu izandu dut ta aranoarra ta goizutarrana re bazeen ba hor ixtorio polita" san zian ta "a bai haber ba haber ba kontatu." Ta bittartian geunden denak elizako atarin denak ola haber ze saten zun ba Bittorreki, eta "bai, bai omen zen aranoar bat bai omen zijuau hola bizkarrian, konkoxua men zen bizkarrian kozkorra zuna, okerra zena ta, bai omen zijuau Goizuta aldeca ta Goizutan sarreran goizutar batekin topatu ta goizutarrak san omen zion: "Kaixo Arano goiz kargatuta." Ta aranoarrak

kontestatu men zion: " Bai, goiz xamar izango uk, Goizutau leyun erdik itxik zeudek behintzat." Goizutarra tuertua izaki. Ordun ze pasa zen ni hasi nitzan ustez aranoarrak hilia hartzen goizutarra izakita, jendea abariziosua zela o sanez ta Bittorrek kontatu zuen bixtoriyukin jendiak askoze parra geyo nola in baitzun ni geldittu nitzan goizutarrak tontuk eta burlosuk giñala bezala esan ziela aleia, xuabe xuabe ta okerrao geldittu nitzan.

Maider Ansa Zugarramurdi

Maider Ansa Zugarramurdi.

14 urte. DBH 1-2. Maila

Goizueta.

**Elkarritzetatua:** M<sup>a</sup> Jesus Zugarramurdi Zestau  
44 urte. Goizuetakoa.

**Gaia:** Kontaketak: sorginak eta beste pasadizoak.